

HABELARTE, Mendialdeako baserritar elkarte sortu da

(Leitza, 2021eko martxoaren 29 a)

Atzo, martxoaren 28 a, Aralarko San Migueleko Santutegi ondoko aretoan Mendialdeko baserritar agroekologikoen elkarte sortzeko batzar eratzailea egin zen. Guztira zonalde osoko 28 lagun elkartu ziren, Arano-Goizueta, Leitzaldea, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Basaburua-Imotz-Atetzeko ekoizleak.

Atzokoa bi urte iraunduen prozesu baten emaitza izan da. Asmoa duela hiru urte sortu zen, Leitza, Bertatik Bertara dinamikak bultzatuta baserritar talde bat agroekologiaren bidea lantzeko asmoarekin elkarte bat sortu nahian hasi zenean. Hasierako ideia Leitza-Areso mailako zerbait egitea bazen ere, asmoa mendialde osora zabaltzea erabaki zen. Besteak beste, zonalde osoan eredu horretan ari diren edo ari nahi duten baserritarrak antolatzen hasteko beharra ikusten zelako.

Bi urte horietan, beraz, CEDERNA- GARALURREko Elikadura teknikariaren laguntzarekin Mendialde osoan garatu den prozesu horretan, eskualdez eskualde egin diren hainbat batzar eta bilerei esker osatu eta ondu da datozen urtetan elkartearen proiektua izanen dena.

Izan ere, sektoreak oro har, eta baserritar txiekiek bereziki, arazo askori egin behar dio aurre bere egunerokoan, maila desberdinetan: ekoizpen arloan, eraldaketa prozesuan, komertzializazioan, bere produktuaren promozioan, kontsumitzaile eta administrazioarekiko harremanean, e.a. Bi urte hauetako lanketak balio izan du konturatzeko tokiko errealitatea desberdinak izanagatik, beharrak guztiontzat berdina direla. Eta behar horiek identifikatuta, soluzio kolektiboak lantzeko tresna izanen den elkarte horren filosofia eta etorkizunean landuko den bide orria zehaztu dira atzo aurkeztu zen dokumentuan.

Dokumentuak lau zati ditu:

1. Filosofia, helburuak eta landuko duten ereduaren definizioa jasotzen duena.

- Elkarteak bere bidea Elikadura burujabetza eta iraunkortasun klabeetan kokatzen du. Eta zonaldean Elikadura arloan eragile desberdinek bultzatzen ari diren mugimenduaren barrenean aktore garrantzitsu izan nahi du.
- Elikaduraren gaia egun gizarteak dituen erronka nagusien ikuspegitik landu nahi dute, osasuna, ingurumena, biodibertsitatea, klima larrialdia, tokiko garapena uztartuz. Horretarako tresna nekazaritza eredu iraunkorra sustatzea izanen delarik. Honela laburbiltzen dute euren helburua: **Nekazaritza iraunkorra bultzatzea, eredu estentsiboan eta agroekologian oinarritutako praktikak sustatuz, prozesu eraldatzaile bezala ulertuta. Eredu hau lantzearen bidez gure etxaldean errentagarritasun ekonomikoa ezezik, oreka soziala eta ekologikoa lortu nahi dugu.**

2. Lan ildoak. Hauek 6 izanen dira:

- Baloreak, irizpideak eta hauetan oinarritutako marka
- Ekoizpenaren zikloa: ekoizpena, eraldaketa, komertzializazioa, banaketa
- Emakume baserritarra
- Komunikazioa
- Formakuntza eta intzidentzia politikoa
- Idazkaritza eta diruzaintza

3. Antolaketa eta funtzionamendua

4. Autoebaluaketa eta konpromezuen karta.

Dokumentuaren edukia azalduta, eta parte-hartzaileen balorazioak entzun ondoren, batzarraren bukaeran elkartearen izena erabaki zuten. Bost izenen artean, adostutakoa hauxe da: **HABELARTE, Mendialdeako baserritar elkarte**a. Eguna, bazkari eta mahai-giro Bikain batekin bukatuzuten.

HABELARTE, Mendialdeako baserritar elkarte